

00

# Lankidetza Eraldatzaile baterako Ardatzak Garapenerako Lankidetzan eta Nazioarteko Elkartasunean Euskadin



MUGARIK GABE



**Lankidetzaren Eraldatzaile** baterako Ardatzak  
Garapenerako Lankidetzan eta Nazioarteko  
Elkartasunean Euskadin



**MUGARIK GABE**

Organización No Gubernamental de Cooperación  
para un Desarrollo Humano, Equitativo y Sostenible  
Declarada de Utilidad Pública

# Lankidetzaren Eraldatzaile baterako Ardatzak

## Garapenerako Lankidetzaren eta Nazioarteko Elkartasunean Euskadin

Instituzio publiko euskaldunei eta baita “krisi” testuinguru an ere Garapenerako Lankidetzaren aldeko apustua egiten duten bestelako lankidetzaren eta elkartasun eragileei zuzendutako Mugarik Gabe elkartearen proposamenak

Mugarik Gabe elkartearen 25 urte baino gehiago daramatzagu nazioarteko lankidetzaren prozesuaren bitartez eraldaketa sozialaren alde apustu egiten. Egun bizi dugun testuinguru politiko, ekonomiko eta sozialean eskubide eta politika sozialen arloan emandako atzerapausoa salatzeaz gain, proposamen eta alternatiben garapenean ere parte hartu behar dugula uste dugu.

Hori dela eta, apostu historikoak berrestea eta era berean garapenerako lankidetzaren alde apustu egiten jarraitzen duten euskal instituzio publikoetako politikekin barneratzeko beste gaurkotatasun-proposamen batzuk mahaigaineratzea helburu duen dokumentu hau aurkezten dugu. Ez du harreman itxi bat izateko asmorik, ezta anbizio handikoa ere, baina bai sakona eta zehatza hainbat eragile instituzionalek adierazitako konpromiso eta edukiak berresteko. Irmoki uste dugu politika hauek gauzagarriak eta ezinbestekoak direla, eta berauek haustea nazioarteko elkartasunaren eta orokorrean euskal gizartearen giza eskubideen sustapen eta bermean atzerapausoa suposatuko lukeela, bai bere instituzioetatik bai herrialde honetako eragile politiko eta sozialen osotasunetik.

Mugarik Gabe elkartetik, beste hainbat erakunde eta gizarte-mugimenduekin batera, lankidetzaren eta elkartasunaren gure gizartearen ezaugarri bat dela baieztatzen dugu eta horrela egiaztatzen dugu gure urteetako lanarekin munduko leku desberdin askotan. Era berean, politika horiek gaur egun bidegabekeria eta eskubideen urraketak bizi dituzten milioika pertsonetako eta ehundaka herrietako betebeharrak eta konpromiso etikoa eta politikoa direla uste dugu, eta horrela adierazten dugu.



## 1. Kontzientzia kritikoa eta elkartasuna

Eguno egoera krisi ekonomikoaren testuingurura murriztu dezakegu, zibilizazioaren krisi ikuspegi bateraino zabal dezakegu. Baina, dimentsio batean edo bestean, ala erdibidekoetan, gaur inoiz baino gehiago hiritargoan eta berau osatzen duten instituzio desberdinetan eta eragile politiko, ekonomiko eta sozialetan *elkartasun kontzientzia kritiko* bat piztuko duen Lankidetzaren ikuspegia sustatu behar dela uste dugu. Hau izango da gizartearen eta gainontzeko munduaren hobekuntza eta garapenerako bermea, gure konpromisoaren abala. *Elkartasunezko kontzientzia kritiko* honek munduan euskal gizartearen nortasunaren ikurretako bat izaten jarraitu behar du.

Konpromiso honetan funtsezkoa da **Giza Eskubideen ikuspegi** bat mantentzea, jadanik gainditutako beste batzuk baino aberatsagoak diren gizarte eta herrialde batzuen ardura onartu gabe, Lankidetzaren laguntza soil gisa ulertzen zuten ikuspegiatarako atzerapausu arriskua murrizteko. Garapenerako lankidetzaren soilik oparoaldi ekonomiko garaietan mantentzean edo bere eduki eraldatzailea eta estrategikoa hustutzean, gure baliabideen arabera dirua batetik bestera mugitzera murriztuz edota berauen ikuspegi instrumentala planteatzean (internazionalizazio helburuak, interes ekonomikoak...) dago arriskua.

Horregatik, *elkartasunezko kontzientzia kritiko* honen sorrerak, lehendabizi instituzioetan hasi behar du, bere apostu politikoa eta gizartearena erakutsiz, legeetan, planetan eta programetan hartutako konpromisoak mantenduz; edo gutxienez, modu arduratsuan, hitz eginda, eta gardentasunarekin testuinguru berrietan bere konpromisoak betetzeko estrategia berriak beste ikuspuntu batetik planteatuz.

## 2. Ikuspegi orokorra eta interdependentzia

Aurreko atalarekin harreman zuzenean, lankidetzaren ikuspegi orokor baten aldeko apustua egin behar duela uste dugu. Orientabide hau ez da soilik txirotutako herrialdeei bideratua egongo; herrien, herrialdeen eta naturaren arteko interdependentziaz abiatzen da eta hau agerian uzten du. Horrela, gaur egungo munduan gure ekintzek beste leku batzuetan ere ondorioak dituztela ulertuz (transnazionalak, ingurugiroa...).

Aurreko ideia beti mantendu izan badugu ere, egun, bizi duguna bezalako krisian dagoen munduan, honek zentzu handiagoa du oraindik. Gertakari moduan egiaztatu dugu, munduaren alde batean gertatzen denak berehala eragina izan dezakeela planetaren gainerako tokietan. Beraz, lankidetzaren eraldatzaileak ikuspegi orokor hori mantentzen eta garatzen jarrai dezake eta jarraitu behar du, nahiz eta bere jardunak batez ere tokiko eragina izan, eta gaur toki horretan jarduten duten eragile eta ekintzen artean interdependentzia egon.

Horrela, ikuspegi orokor eta interdependentek lankidetzarekin aurrera atera ditzakegun ekintzak eta prozesuak definitu behar ditu, elkarrekiko arduratsuak izateko modu gisa. Bata zein bestea, era batean edo bestean gure gizartean eragiten egongo dira, ez baikara “munduan gertatzen dena ikusteko” posiziotik abiatzen, “munduaren parte izateko” posiziotik baizik.

### 3. **Eraldaketarako hezkuntzaren aldeko apustua**

Errealitatearen ezagutza sustatzen duen hezkuntza bat eta gure garapen eredia zalantzan jartzen duena, bere analisi kritikoa egin eta pertsonen eta herrien artean desberdintasunak eragiten dituzten zergatiak ulertzen dituen; baita gure inguruarekin daukagun harremana ere eztabaidatzen duena. Aipatutako ereduari alternatibak eskaintzen dizkiona, eta gure ekintza guztien politizazioari buruzko hausnarketa bultzatzen duena. Gure rola eta gure ardura zein den aztertu, eta aldaketa pertsonal eta kolektibo baten bitartez eraldaketarako aukerak ere aztertu; hau norberaren sendotzetik hasten da, politikoki aktiboak diren pertsonak lortzeko.

Interdependente gisa definitzen dugun mundu honetan, hezkuntza eredu hau ezinbesteko atala da jarraitzen dugun lankidetzaren eraldatzailea lortzeko. Instituzioetan eta gizartean; izan ere lehenengoek, neurri handi batean, bigarrenaren adierazpen eta isla izan behar dute; nahi ditugun kontzientzia kritikoa eta elkartasuna sortzeko tresna nagusia da hezkuntza.

### 4. **Gizarte mugimenduei eta erakunde eraldatzaileei babesak**

Gure gizartean, diskurtso politikoak gizartearen parte hartze aktiboaren alde egin izan du beti, bere bilakaeran sistema solidarioagoak, bidezkoagoak, asumituagoak eta partehartzaileagoak lortzeko.

Ikuspegi horretatik abiatuta, garapenerako prozesuen babesak, bere zentzurik zabalenean, herrialde desberdinetako gizartearen erakunde eta mugimendu zibilei zuzendutako funtsezko elementua izan behar du. Azken batean, hauek dira gizarte horietako antolatutako adierazpenak, hauek dira bizi-baldintzak hobetzeko ahultasun eta beharrak ezin hobeki ezagutzen dituztenak. Hortaz, lankidetzak eta elkartasunak erakundeak eta gizarte mugimenduak kontuan hartu behar dituela uste dugu, garapenaren eta eraldaketa sozialaren subjektu politiko gisa.



## 5. Prozesuei babeser

Azken urteetan, ekintza puntualei beharrean prozesuei zuzendutako babesaren aldeko apostua indartzen joan da eta garapenerako politika publikoetan sartzen joan da. Azpigarapena deiturikoaren zergati eta ondorioen ezabaketan aurrerapausoak emateko beharra ulertaraztea, garapenerako eragileek egindako lan gogorra izan da. Orain ikuspegi hau bizi dugun krisiaren testuingurua dela eta gal ez dadin zaindu beharra daukagu, epe luzerako prozesuen babeser mantenduz eta baita lehentasunezko eduki estrategikoak barneratuz ere. Gure apostuak *eragile eraldatzaileen prestakuntza, artikulazio eta sendotasunaren* alde egiten du, baita ikuspegi estrategikoak duten beste ekintza batzuen alde ere.

Uste dugu gizarte justuagoen eraikuntzak eskatzen dizkigun eraldaketa politiko, ekonomiko eta sozialak ezin direla ekintza puntualen ondorio izan. Gure gizarte propioak epe luzean mugimenduan dauden prozesuen emaitza dira; beraz, lankidetzar ekintzak ere ibilbide luzeko prozesuen barnean ulertu behar ditugu, justiziak, demokraziak eta pertsoneen eta herrialdeen askatasunak eskatzen dituzten eraldaketak lortzeko.

## 6. Feedbacka/hartu-emanar **paradigma alternatiboekin**

Lankidetzatik, beste herrialde eta lurralde batzuetan garatzen ari diren proposamenen inguruko kasu askoren ezjakintasuna ezagutzen eta onartzen lehenengoak izan behar dugu. Gure ardura da beste leku batzuetan bultzatzen ari diren paradigmatik berhartzea, elkartrukatzear eta besteetatik ikastea: ondo bizitzea, ekonomiar feminista, desazkundera, komunitate-feminismoa...

Epe luzerako prozesuen apustuar aipatzen genuen era horretan lan egiteko; eta prozesu horietako asko gaur egun gure gizarteetan erabiltzen ditugun paradigma desberdinetan oinarrituz eraikitzen dira. Horregatik, beste paradigma batzuk ikastea eta ulertzen saiatzea, beste herrialde batzuekiko beharrezko berdintasun planoan kokatuko gintuzke, ezaugarritu gaituen sistema menderatzaile eta etnozentrikoar apurtuz.

Herri orok, gizarte orok, bere munduar ulertzeko moduar aurkezen dizkion bideak esploratzeko eskubidea du. Lankidetzatik eta elkartasunetik, gure betebeharra da eskubide horiek errespetatzea eta bere gauzatzearen alde ahal dena egitea. Baina gauden krisian egonda, berdintasunezko eta errespetuzko gizar harremanen berezko diren hartu-emanek ere gaur egun okerrera egin duten gehiengo sozialaren bizi baldintzak hobetzeko balio zezaketen elementu batzuk eman ahalko lizkiguke.

## 7. Apustu **feminista**

Ez dugu ikuspegi feminista argirik gabeko inolako lankidetzak ekintzarik ulertzen; urte asko dira jada diskurtsoan eta lankidetzak ekintzetan generoaren zeharkako izaera sartzen dela. Esparru formalenean (legeak, planak,...) berdintasun arloan aurrerapausoak ematen joan dira baina oraindik ere hutsune handiekin, askotan edukirik gabeko politikak sortuz, estrategia egokirik gabekoak edota baliabide nahikorik gabekoak. Ekintza hauek hobetzeko unea da, alde batetik edukien garapenean (ekofeminismoa, ekonomia feminista...), prozeduretan eta batez ere, betetze-exijitzentzian.

## 8. **Naturaren** aldeko apustua

Apustu feministarekin gertatzen den bezala, gure ekintzek ingurugiroan duten eragina argia da eta lankidetzak egoera hau hobetzen lagundu beharko ligukeen baliabide bat gehiago da. Askok dira sortzen ari diren eraketa eta horiek garatzen jarrai dezakegu: desazkundera, kontsumo arduratsua, elikadura subiranotasuna, ondo bizitzea,... Aurretik aipatutako paradigmak, egungo naturaren menderakuntza eta ustiapen jarduerak planetarentzat egoera atzeraezinetara eramaten gaituztela erakusten digutenak. Naturaren ustiapen eta espoliazioa, gaur egun jadanik era argiago eta gogorragoan sumatzen diren aldaketa drastikoak eragiten ari da berarengan. Horregatik, menderatzaile ikusmoldearekin bukatu eta "gure inguruarekin bat" garelako ulertzeak, herri eta gizarte askok defendatzen duten moduan, hurrengo belaunaldien eta planetaren jarraipena bermatu dezake.

## 9. Apustu politikoa **baliabide**etan islatu behar da

Plan eta lege guztiek euren garapenerako beharrezkoak diren baliabideak izan behar dituzte, baita era egokian egin ahal izateko beharrezko azpiegiturak eta pertsona ere. Eta ez gara oraindik eskasak diren Nazio Batuek joan den mendeko 70eko hamarkadan onartutako %0,7a bezalako nazioarteko konpromisoak betetzeko arduraz soilik ari, lankidetzarako euskal politikez, burututako murrizketen beharrezko azterketaz eta ezartzen diren lehentasunez baizik.

Sektore honek historikoki erakutsi du zenbat gauza egin dituen munduan zehar, etengabe erakutsi du gure gizartearen bizitasuna, milaka pertsona boluntario mugiarazi ditu, gure instituzioetan, komunikabideetan eta gizartearen eredu politikoki eragin du. Prozesu txiki eta handiak babestu ditu munduko hainbat herrialdetan, milioika pertsonari bizitza hobea izateko aukera eta oportunitate berriak sortuz. Munduari erakutsi dio Europan badela elkartzaren handiko herri txiki bat eta horrek euskal gizartearen irudia sendotu du, onura etiko, politikoa eta ekonomiko handiak emanez. Eta horretarako guztirako, mugiarazi dituen baliabide ekonomiko eta azpiegiturak, proportzionalki, minimoak izan direla esan daiteke. Horregatik ere, ezinbestekotzat jotzen dugu euskal instituzioek lankidetzak eta elkartzaren esparruan egiten duten apustu politikoa eta praktika mantentzea, gutxienez 2012 urtera arte kudeatutako baliabide berdinekin.



## 10. Koherentzia

Garapenerako Lankidetzaren otsailaren 22ko 1/2007 Legean (3.11 art.) jasotako politiken koherentziak garapenerako lankidetzaren planteatzeko orduko instituzioen ikuspegiaren orokortasuna aipatzen du, Lankidetzarako Euskal Agentziaren lan zehatz eta espezifikoak haratago.

Lankidetzaren eragin positiboa hobetu, gainontzeko politikak giza garapen zuzen eta jasangarriaren helburuekin bat datozela ziurtatuz. Politika horiek lankidetzaren eraldatzaile, kritikoa eta solidario honekin bat datozela ziurtatzea da gure helburua. Hegoaldeko herriek beste administrazio batzuetatik nola eta zenbat interferentzia negatibo jasotzen dituzten jakitea izango da antilankidetzaren kontrako gure lana. Antilankidetzaren gutxiengora murrizteak edo ezabatzeak, ezinbestez, sistema ekonomiko eta politikoaren beharrezko berrantolaketa batera eramango gaitu eta hauen banaketa zuzenago eta parte-hartzaileago batera. "Interferentzia negatibo" horiek ezabatuz lankidetzaren eraldatzaile eta solidario baten garapenerako euskal politiken koherentzia lortuko dugu.

Instituzio arteko eta sailen arteko arbetan koherentzia egotearen garrantziaz gain, ezinbestekoa da koherentzia diskurtsoan eta praktikan. Mundu justu baterako nahi dena norberaren instituzioetako lankidetzaren azpiegiturretan ezarri behar dela uste dugu (genero eta ingurugiro politikak izan, lan eskubideak betetzea, ebaluazioak, gardentasuna...).

Azken finean, gardentasuna eta koherentzia gure teoriak diktatzen dituzten ardatzak baldin badira, ezinbestekoa da gure lankidetzaren politikak zuzendu behar dituen funtsezko zintzotasun politikoak hauek eguneroko praktikara eramatea.

Mugarik Gabe, 2013ko urriaren 22a





## BESTE PUBLIKAZIO BATZUK:

